

C. BUSQUETS



MARGO-EDERDUN
IPIAK

ASTO-NARRU

Alma Muf...
636445302



Bein baten, urte asko dirala, Errege bat
biziz zan. Asko maite eban bere emaztea, Erregiñea.

Baiña Erregiñea gaixotu eta il egin zan.

Erregea oso goibel gelditu zan.

Egunak joan egunak etorri, Erregea beti bardin.

Orduan, bere lagunak esan eutsen:

—Errege, ezkondu zaitetz berrero ta poztuko zara.

—Nire emaztea oso ona eta ederra izan zan.

Eta olako printzesa bategaz baiño ez naz ezkonduko.

Erregeak jo ta ke ekin eutsan alako printzesa bat aurkitu arte. Eta egun baten esan eban:

—«Neure alabeagaz ezkonduko naz, amaren antzera ona ta ederra da-ta».



Printzesak, amabixtat, Mari-on bat eukan, eta zer eritxon itandu eutsan.

—Auxe esan, zure aita, Erregeari:

«Zugaz ezkontzekotan, diru-kutxa urrez betetan dauan asto narrua emon bear daustazu».


Ez dautzu emon nai izango, eta orduan erantzun ez dozula senartzat artuko.



Baña Erregeak astoa il egin eban eta
narrua garbituta alabari emon eutsan.
—Orain zer egin?-itandu eutsan Printzesak Mari-onari.

—Asto-narruagaz jantzi eta iges egin.
Ezertxo bere ez éroan.
Zeure jantziak edo nai dozuzanean,
sorgin-makilla onegaz lurra ikutu,
eta bertan eukiko dozuz.

Printzesak gautu arte
itxaron eban.



Orduan asto-narrua jantzi eban, eta besteak
lotan egozala, iñortxok ikusi barik joan zan.

Egun asko ibilli ondoren
alboko lurralde batera eldu zan.

—Orain beintzat urtengo dot estualdetik-esan eban.

Baserri aundi bat aurkitu eban.
—¿Neskamerik bear dozue?—
Itandu eutsan ugazabari.
Asto narruagaz ikusita,
baserritarra barreka asi zan.



—Zulako neska zatar eta zikiña
txarriak zaintzeko ez bada ez dogu nai.

Printzesak ez eban ezer esan.
Aurrerantzean txarriak zaindu eta
txarri-tokiak garbitzen ebazan.

Sukaldeko baztar baten
bakar-bakarrik, jaten eban.

Danak, bera zala ta etzala,
barre egiten eben.
«Asto-narru» deitzen eutsen.
Baña gure printzesa
etzan asarratzen.



Igandetan,
baserriko morroi guztiak
kalera joaten ziran.
Orduan Printzesa bere gelara joan,
eta sorgin-makillaz lurra ikuturik,
jantzi politak ipiñi eta leiotik
begira jarten zan.

Baña egun batean,
printze batek ikusi eban,
Eta neskatillea nor zan
jakin gura eban:



—Nor da leio orretatik begira
egon dan neskatillea?

—«Asto-narru» zatar ta zikiña.

Besterik ezin izan.—

Erantzun eutsan baserritarrak.

Printzeak «Asto-narru»

ezagutu nai izan eban

eta ikusi ebanean,

maite-minduta

esan eban:

—Amesetan

ete nago?



Eta jauregira eldu zanean,
tristuraz gaixotu egin zan.

Erreiñuko osagille onenak ekarri arren,
Printzeak ez eban esan gura zer zan beran gaixoa.


Egun baten esan eban:

—«Asto-narruk» gertatutako opil-gozo bat jan arte
ez naz osatuko.



«Asto-narru» bere gelara joan,
garbitu, sedazko jantzi bat ipiñi,
eta opil eder bat egin eban.

Opilla egiten ebillala erastuna eskutau eban bertan.
Printzeak opilla jaterakoan, erastuna aurkitu eban.
Erastun zoragarri bat zan.



Printzeak erastuna aitari erakutsi eta esan eutsan:
—Naiz aberatza naiz beartsua,
erastun au ondo daukan neskatoagaz ezkonduko naz.



An joan ziran Erregearen morroiak
erririk erri deadarka:
—Datozela neskatilla guztiak,
erastun au norena dan jakiteko.
Baña iñok be ez eukan neurrian.
Ain zan erastun txikia!

Erregea asarre jarri zan.
—Zergaitik ez doaz «Asto-narruren» billa?—
Itandu eban Printzeak.
«Asto-narru» zatar ta zikiña
Erregearen aurrera etorri zan.
Erregea kopet-illun jarri zan.

Baña printzeak esan eutsan:—Aurrera, aurrera!
«Asto-narruk» eskua narrupetik atara,
eta oso errez sartu eban erastuna
atzamarrean.



Orduantxe jausi yakon narrua.
Eta Printzesa zoragarria agertu zan.
Printzeak eskuan mun egin eutsan esanaz:
—Auxe da leioan ikusi neban neskatillea.

Erregea be asko poztu zan,
Asto-narru Printzesa zala jakin ebanean.
Eztegü-jaiak berealaxe egin ziran.

Eta danak zoriontsu bizi izan ziran.



© Editorial Ramón Sopena, S. A.
Depósito Legal: B. 36.301 - 1969
Gráficas Ramón Sopena, S. A.
Provenza, 93 - Barcelona - 1969 (11.986)
Impreso en España - Printed in Spain

SORTA ONETAKO IPUIAK

Lapurren Azken Txarra

Tximu dantzariak

Bi konejutxoak

Atxo gaxoa

Simon lelo

Asto-narru

Amatxo



Nekanen gora-berak

Iturriko maitagarria

Mitxitxu ta Mitxita

Katu Borrokalaria